

Inauteriak Eskoriatzan

Inauterien esanahiaz ondo jabetzen ez bagara ere, badira zenbait elementu bere-bereak dituenak zalantza barik: jana eta edana ugari, mozorroak, maskarak, musika eta, nola ez, dantza.

Ospatu ere, ez da beti sasoi berean ospatu. Garai bateko gizonak ilargia hartzen zuen oinarritzat bere egutegia eratzeko. Egutegi horren arabera, udaberriaren izaten zen urtearen hasiera, eta ez orain bezala, urtarrilean. Egutegia aldatzeak ohiturak dataz aldatzea ekarri zuen, inola ere ez ohitura galtzea.

Izan ere, inauteriek ez dute esanahi edo zentzu bera eduki historian zehar: Lehenengo une batean, denboran oso urrun, urtearen hasiera ospatzen zuen gizakiak festa honetan. Gaur egun udaberria den garaian ospatzen zen eta, esan bezala, urte zaharra amaitu eta berria hasia zen festaren funtsa. Miel Otxin, Zarpantzar... erretzen diren pertsonaia horiek guztiak gauza bera sinbolizatzen dute: amaitu den urte zaharra. Urte zahar horren hondarrak kendu egin behar dira, erre, garbitu.

Eskoriatzan, Kukumarroa zen antzinako garaietan inauterietako pertsonai nagusia. Kukumarroak mendian bizi ziren basagizonak ziren. Menditik jaisten ziren negu amaieran eta herriko jendea zirikatatu eta beldurtzen saiatzen ziren haurrek iseka egin bitartean: "kukumarro txori malo".



Sabelean loredun amantala jantzita irudikatzen ditugu, heltzear dagoen udaberriaren seinale, eta bizkarrean, ardi-larrua dutela, bukatzear dagoen negu gorria adieraziz.

Bigarren aldia Erdi Aroan kokatu behar dugu. Gizakiak ez du bere burua Naturako indarren mende ikusten, Elizaren indarren mende baino.

Elizak lege gogorrak jarri zituen, eta, nolabait, Inauteriaren kontrako jarrera hartu zuen Horrela bada, ohitura guztien moduan Inauteriak ere

garai berrietara moldatzen joan ziren, Kukumarroen kasuan garbi ikus daitekeen bezala: herriko haurrek burla egiten zieten eta hauek korrika segi, baina berrikuntza batekin, haurrek babesa eliz barruan aurkitzen zuten edo bestela kristau sinboloak erakusten zizkieten atzera egin zezaten.

Gaur egun ere gizakiok askotan mugatuta dugu geure burua eta ez gara eguneroko bizitzan benetan garen modukoak agertzen. Inauterietan, maskara edo mozorroa jartzerakoan, urtean zehar jantzi ditugun beste maskara guztiak kentzen ditugu. Hauxe litzateke gaur egun Inauteriek duten esanahia: liberazioa.

Urdelardero

Inauteriei hasiera emateko, Eskoriatzan, "ostegun gizen" egunean Urdelardero eguna ospatzen da. Egun horretan herriko umeak baserritar jantzita kalez kale ibiltzen dira abesten. Eskuan "ziria" izeneko makilatxo bat daramate, eta hor sartuta txorizoa, ogi-zatia, sagarra....

Garai batean, eskean ibiltzen zirenei etxekoandreek janaria jartzen zieten zirian, gaur egun balkoietatik karameluak botatzen dizkiete.



Eskoriatzan abesten den kantua:

**Urdei lardero
Urdeixa janda
Bazkaixa gero
Hor goixen itturri bat
Haren gainean txori bat
Ura pil-pil etorri da
Etxekoandre zabala
Etxe oneko alaba!!**

Eskoriatzako Udala

Carnavales en Eskoriatza

Si bien desconocemos algunos aspectos del carnaval, existen varios elementos característicos: ingestión de comida y bebida, disfraces, máscaras, música, y por supuesto, la danza.

No siempre se ha celebrado el carnaval en las mismas fechas. El hombre basaba antiguamente su calendario en las fases lunares, de modo que el año comenzaba en primavera y no en enero, como sucede en nuestros días. El cambio del calendario trajo consigo una modificación en las fechas, pero en ningún caso la desaparición de esta costumbre.

De hecho, los carnavales no han cobrado el mismo significado a través de la historia. Al principio, hace ya mucho tiempo, el hombre celebraba esta fiesta con el comienzo del año. Se celebraba en la época que en nuestros días corresponde a la primavera, y la fiesta se fundamentaba en el cierre del viejo año y el inicio del nuevo. Todos los personajes que se queman en la hoguera, Miel Otxin, Zantantzar,... simbolizan el año que acaba de concluir. Los vestigios del viejo año deben quemarse y limpiarse.

En Eskoriatza, en tiempos pasados, el Kukumarro era el personaje principal de los carnavales. Se llamaba kukumarro a los hombres que vivían en el bosque, que descendía al final del invierno, con el ánimo de tentar y atemorizar a la gente; los niños se burlaban diciendo: "kukumarro txori malo".



Se representan con un delantal de flores en la cintura, que simboliza la primavera que ha de llegar, y con una piel de cordero a la espalda, que representa el crudo invierno que se deja.

En una segunda época, en la Edad Media, el hombre no se ve subyugado por la fuerza de la Naturaleza, sino por el poder de la Iglesia.

La iglesia estableció normas estrictas y adoptó una posición contraria al Carnaval. De esta guisa, el carnaval fue adaptándose a los nuevos tiempos, tal y como se aprecia en el caso de los kukumarros. Los niños del pueblo se burlaban de ellos y éstos les perseguían, con una novedad añadida, ya que los niños se resguardaban en la iglesia o mostraban símbolos cristianos para que retrocediesen.

Hoy en día las personas nos sentimos presas de numerosas convenciones y no nos mostramos a los demás tal como somos. En carnavales, al vestir el disfraz o ponernos la máscara, nos quitamos todas las máscaras que nos hemos puesto durante el año. El carnaval es hoy sinónimo de liberación.

Urdelardero

Lardero procede del latín lardum o lardium, palabra con la que los romanos denominaban el tocino y la manteca de cerdo, y que con el tiempo vino a ser sinónimo de carne de cerdo. Y esto era lo que en especial caracterizaba al Jueves Lardero, el abundante consumo de esta carne o de sus productos secundarios.

Los carnavales comienzan en Eskoriatza en "jueves gordo" con la celebración de Urdelardero eguna.

Ese día los niños se visten de baserritarra y cantan por las calles. Portan en sus manos los "ziriak" y pinchan ahí el chorizo, el pan, la manzana,...

Hubo una época en la que las etxekoandres introducían los alimentos en los ziris; hoy, en cambio, lanzan caramelos desde los balcones.



Ésto es lo que se canta en Eskoriatza:

**Urdei lardero
Urdeixa janda
Bazkaixa gero
Hor goixen itturri bat
Haren gainean txori bat
Ura pil-pil etorri da
Etxekoandre zabala
Etxe oneko alaba!!**

Eskoriatzako Udala